

BERDINTASUNAREN ALDEKO POLITIKEN GAINEKO KONTZIENTZIA "AKTIBATZEKO" DEIA EGIN DIE IBON URIBEK BRUSELAN BILDUTAKO EUROPAKO UDALERRIEI

- **Galdakaoko alkate eta EUDELeko ordezkariak hitzaldia eman du gaur Bruselan ehun pertsona baino gehiagoren aurrean, Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluaren (CMRE) berdintasunerako Batzordearen presidente gisa eskaini duen lehenengo konferentzian.**
- **Ibon Uribek dei egin die tokiko gobernuei, lidergoa euren gain hartu dezaten eta Berdintasuna agenda politikoaren erdigunean jartzeko eskura dituzten tresna guztiak aktibatu ditzaten.**

Asteazkena, 2105eko urriaren 14a. Ibon Uribek lehenengo hitzaldia eskaini du gaur goizean Bruselan, CMREk 2015-2017 agintaldirako Berdintasunerako Batzordearen presidente izendatu ostean. EUDELen talde eragilearen kide da Uribe, eta Europako batzorde horren buruan lortu nahi duen helburuetako bat da Euskadi erreferente bihurtzea, Berdintasunerako politika publikoei dagokienez, udalerrien artean sarean lan eginez eta Euskadiko gainerako erakundeen arteko lankidetzan oinarrituta.

Presidente berriak 2017ra arte beteko duen bi urteko agintaldiaren ardatzen norabidea zehaztuko duten **helburuak** zein diren azaldu du, berdintasunerako tokiko politikek eragin handiagoa izan dezaten lortzeko azken xedearekin.

"Gure udalerriek gero eta tresna eta aditu gehiago dituzte, berdintasunari tokiko esparruan bultzada emateko (...). Alabaina, desberdintasunaren zifrek esaten digute hau ez dela nahikoa. Beharrezkoa da tokiko gobernuen buruan gaudenok kontzientzia indibidual eta kolektiboa hartzea, berdintasuna politikaren erdigunean kokatzeko, bai edukiari bai berdintasuna bera betearazteari dagokienez."

Belgikako hiriburuko topaketan Europako Batzordeko kide diren herrialdeetako tokiko eta eskualdeko agintaritzen ehun bat ordezkari izan dira, baita Europako Parlamentuko eta Batzordeko ordezkariak ere. Ibon Uribe **Emakundeko zuzendari Izaskun Landaigarekin** eta **Berangoko Alkatea, Maria Isabel Lasarekin**, eta **Sestaoko gizarte-ongizatearen zinegotzia, Flori Nuñezekin** izan da topaketan.

Konferentzia Bruselako udaletxean izango da gaur. Saio nagusian, **Berdintasunerako Europako Gutunak** tokiko bizimoduan duen eragina neurtzeko proiektu pilotuaren emaitzak aurkeztuko dira. Gainera, programak hiru **tailer paralelo** hartzen ditu barne, honako gaiak aztertu eta horien gainean eztabaidatzeko: enpleguan dauden desberdintasunak, erabakiak hartzeko orduan emakumeek duten rol politikoa eta genero-indarkeria.

3 helburu nagusiak

Ibon Uribek, EUDELen izenean, presidente kargua beteko du datozen bi urteotan, 2017ko urte amaierara arte, **Suediako Elkarteko** Ewa Samuelssonen lekukoa jaso ostean.

Uribek esan duenez, CMREko udalerrien elkarteekin eurekin partekatu eta adostu nahi du ibilbide-orria. Presidente berriaren asmoa da “taldean lan egitea” eta Europako tokiko gobernuak koordinatzea, **estrategia politiko eraldatzaile, eraginkor eta iraunkorra** lortzeko, tokiko bizimoduan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko lanean.

Presidenteak **lehentasunezko hiru helburu** finkatu ditu lanean hasteko:

- Berdintasunerako Batzordea (CMRE) **ahalduntzea, bere eragin-esparruan** (tokiko eta eskualdeko gobernuak eta esparruan lanean diharduten gainerako erakundeak) **bultzada handiagoa** izan dezan.
- **Berdintasuna demokraziaren** elementu **nagusi** gisa eta **Gobernantza Onaren ardatz** gisa finkatzea.
- CMREko kide diren elkarteetako eta ordezkatzten dituzten tokiko gobernuetako **langile politikoek kontzientzia indibidual eta kolektiboaren gaineko kontzientzia hartzen** laguntzea.

CMREren **Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra** (Standing Committee for Equality) EBko herrialdeetan Berdintasunerako tokiko politikak koordinatzeko organo gorena da. Europako udalerri eta eskualdeen elkarte nagusietako ordezkariak osatzen dute Batzordea.

Berdintasunaren Europako Gutunarekin batera, CMREk eskura ditu bestelako zenbait tresna, adibidez, behatoki bat, praktika onak partekatzeko eta berdintasunerako politika publikoek tokiko bizimoduan duten eragina aztertzeko.

www.eudel.eus